



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Espediente-zenbakia: 06-400-11

Administrazio-klausula zehatzen agiriaren KARATULA

Prozedura: IREKIA.

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Kontratuaren xedea, izaera eta asetzekoak diren beharizanen hedadura: **BIDEO EKOIZPENA ETA OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN ZERBITZURAKO EKIPOEN KUDEAKETA**

1.2.- Multzotan zatitzea (bai/ez): EZ

1.3.- CPA-2008 sailkapen estatistikoaren kodea (451/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, apirilaren 23koa)
59.11.23 Filmak edo bestelako bideo-edukiak diskoetan, zinta magnetikoetan edo beste euskarri fisiko batzuetan
59.12.1 Zine-, bideo- eta telebista-programen postprodukzio-zerbitzuak

1.4.- CPV nomenklaturaren kodifikazioa (Europako Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 (EE) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi erkidea (CPV) onartu zuen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena): 92100000 Zine- eta bideo-zerbitzuak, 92220000 Telebista-zerbitzuak

2.- KONTRATU-AGIRIAK.

Klausulen agirian dagokion klausulan adierazitakoak, eta, hala balegokio, honako hauek:

Klausula administratibo partikularren plegua.

Klausula teknikoen plegua.

Kontratua (esleipena egin eta gero).

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Gastu adierazgarriarena da: 250.000 euro + 45.000 euro BEZagatik. Guztizko emaitza hau da: 295.000 euro.

Lizitazio motak (Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe) osoko bilkuren aretoan eta batzordeetan:

- Osoko bilkura prestatzea.....	320,00 €/osoko bilkura
- Batzordeen bilkurak prestatzea.....	90,00€/batzorde-bilkura
- Benetako grabazio-orduaren fakturazioa (teknikariko).....	39,00 €/teknikari-ordua

Kontratua gauzatzeko unitatetan edo denbora-unitatetan dago ezarria prezioa, eta zehaztugabea du guztizko zenbatekoa (Ikus karatula honi dagokion puntua). Horrela bada, kontuan hartu behar da egiazko gastua administrazioaren egiazko beharizanen arabera izan behar dela eta, hortaz, administrazioak ez duela unitate-kopuru jakin bat eskatu beharrik, ez eta aurrekontu osoa gastatu beharrik.





4.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

4.1.- Prezioa zehazteko sistemak: unitate-prezioak

4.2.- Prezioa ordaintzeko modalitateak

- Ordainketa osoa: EZ
- Ordainketa partzialak: BAI. Legebiltzarreko Administrazioaren oniritzia beharko lukeen hileko fakturazioa.

4.3.- Ordainketak kontura egitea. EZ

4.4.- Prezioak berrikustea (bai/ez): BAI. SPKLren 77. artikulua xedatutakoari lotuko zaio. Exekuzioko bigarren urtearen hasieran, aurreko urtean kontsumo-prezioen indizean (KPI) Euskadirako gertatu den aldaketa aplikatuko zaio esleipenaren diru-kopuruari. Berdin jokatuko da kontratua luzatzen den guztietan.

- Indize edo formula ofizialak (SPKLren 78.etik 82. era arteko artikulua eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren – APKLEOren 104. artikulua). Erreferentzia-indizea Estatistikako Institutu Nazionalak egindako Kontsumoko Prezioen Indizea denean, edo indize horretan sartzen diren multzoen, azpimultzoen, klaseen edo azpiklaseen indizeetako edozein denean, berrikuspenak ezingo du gainditu hautatutako indizeak jasandako aldaketaren % 85. (SPKLren 78.3 artikulua).

5.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO ENTREGATZEKO AZKEN EGUNA (eskaintzak baloratzeko irizpidea epea izanez gero, aukera dago eskaintzetan epe horiek laburtzeko).

5.1.- Guztizko epea edo muga-eguna: 2 urte

5.2.- Epe edo entrega partzialak (ondoren adierazten diren prestazioen zatiak hasteko edo amaitzeko):

5.3.- Kontratua luzatzea: BAI

- Zenbat luzapen onar daitezkeen: Bi, amaitu aurretik alde biek dokumentu bidez adierazitako adostasunez.
- Luzapen bakoitzaren iraupena: Urte bat

6.- PUBLIZITATE-GASTUAK. Esleipendunak ordaindu beharreko publizitate-gastuen gehieneko kopurua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren (APKLEOren) 67.2 artikulua araberak: Esleipendunak EEHAN publizitate-gastuak ordaindu beharko ditu.

7.- BERMEAK

7.1.- Behin-behineko bermea: EZ

7.2.- Behin betiko bermea: BAI, esleipen-prezioaren gaineko % 5, BEZik gabe.

7.3.- Berme osagarria: EZ

7.4.- Zilegi da bermea ezarri izana bitarteko elektronikoekin, informatikoekin edo telematikoekin egiaztatzea: EZ

7.5.- Zilegi da bermeak prezioaren atxikipenaren bidez eratzea (bai/ez):





7.6.- Prestazio osoa ez baizik eta zati bat hartzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak (bai/ez):

Bermeak Eusko Legebiltzarraren alde ezarriko dira.

8.- ASEGURUAK. Enpresa esleipendunak nahitaezkoak diren aseguruak eduki beharko ditu, klausulen agirian dagokion klausulan ezarritakoak (baldin eta ezarrita badaude), eta ondoren aipatzen direnak ere bai, beharrezko irizten bazaie:

9.- LAN-HARREMAN JAKIN BATZUETAN SUBROGATZEA: EZ

10.- KONTRATUAREN XEDE diren prestazioak GAUZATZEKO, entregatzeko edo egiteko LEKUA: Eusko Legebiltzarrean.

11.- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.

Kontratu hau EAEko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezartzen duen eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak arautzen duen bi hizkuntzen ofizialtasunaren erregimenaren pean dago, bai eta erregimen hori garatzen duen araudiaren pean ere.

Kontratu gauzatzeko baldintzetako bat da bi hizkuntzak erabiltzea, non eta baldintza teknikoan agiritik ez den ondorioztatzen kontratuaren xede den prestazioa hizkuntza batean edo bestean bakarrik egin behar dela nahitaez, prestazioak berezko dituen ezaugarriengatik. Kontratuaren klausuletako edozein betetzen ez denerako ezarritako ondorioak ekarriko ditu betebeharrak hori ez betetzeak.

Kontratu gauzatzeko orduan, kontratu gauzatzeko ezarritako hizkuntza-baldintza zehatzak bete behar dira, dagokion klausulan ezarritakoak.

12.- KONTRATUA GAUZATZEKO BESTE BALDINTZA BEREZI BATZUK.

12.1.- Baldintza sozialak:

Enpresa kontratistak, kontratu gauzatzeko orduan, dagozkien klausuletan gai hauei buruz ezarritako baldintza berezi zehatzak bete beharko ditu: gizartratzea eta laneratzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, enpleguaren kalitatea eta lan-arloko oinarrizko eskubideak, eta lan-arloko segurtasuna eta osasuna.

12.2.- Ingurumenari dagozkion baldintzak:

12.3.- Beste batzuk:

Lizitatuzaileak hitz eman behar du, dagokion eranskinean jasotako agiria sinatuz eta aurkeztuz, kontratu gauzatzeko behar diren baliabideak jarriko dituela eta kontratu gauzatzeko baldintza bereziak beteko dituela.

Nahitaezko azpikontratazioa, karatula honetako 15.2 puntuan hala ezarrita egonez gero.

13.- ZENBAIT BALDINTZA BEREZI URRATZEARI DAGOKION KALIFIKAZIO BEREZIA: EZ

14.- ZIGORRAK. Zigorrek ezarri ahal izango dira SPKLren 196. artikuluan eta klausulen agiriko klausuletan aurreikusten diren betetze akastunengatik edo ez-betetzeengatik.

15.- AZPIKONTRATAZIOA: EZ





16.- PRESTAZIOAK HARTZEKO EPEAK ETA PRESTAZIOEN BERMEEN EPEAK

16.1.- Prestazioak hartzeko epeak (Ikus agiri honetan dagozkion klausulak).

16.2.- Berme-aldia: Kontratuaren izaera kontuan hartuta, ez dago berme-eperik.

17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

17.1.- Kontratua suntsiaraztearen ondorioetarako, funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen dira, klausulen agirian eta kontratuei buruzko araudian halakotzat jotakoez gain, honako hauek:

- Giza baliabideak eta baliabide materialak izendatzeko eginbidea
- Azpikontratatzeko betebeharra, baldin eta hala ezarri bada.

17.2.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi gehigarriak izango dira honako hauek, araudian eta klausulen agirian aurreikusitakoez gain:

- Ez betetzea lan-arloko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia eta klausulak.
- Ez betetzea azpikontratazioaren arloko araudia eta klausulak

18.- KONTRATUAREN XEDEA DEN PRESTAZIOARI BURUZKO BALDINTZA GEHIGARRIAK: EZ

19.- ZERBITZU-KONTRATUAREN PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

LAN-EGITASMOA. Esleipendunak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren (APKLEO) 198. artikuluan aurreikusitako lan-egitasmoa aurkeztu behar du: BAI, Agiri Teknikoan ezarritakoa.

LANAK BALORATZEA ETA ZIURTAGIRIAK.

- Segidako traktuko kontratuetan, APKLEOren 199. artikuluan aurreikusitako hilabetean behingoaz besteko aldizkakotasuna ezartzen da: EZ

IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA. Klausulen agirian datuen tratamenduari buruz ari den klausulak aipatzen dituen neurri bereziak ezartzen dira (bai/ez, baiezkoa izanez gero, adierazi zeintzuk):

II.- KONTRATUAK EGITEKO PROZEDURAREN EZAUGARRIAK, ENPRESEN PARTE HARTZEA ETA HAUTAKETA ETA ESKAINTZAK.

20.- KONTRATAZIO-ORGANOA ETA INFORMAZIOA ETA AGIRIAK ESKURATZEA.

20.1.- Erakunde esleitzaila: Eusko Legebiltzarra

20.2.- Kontratua esleituko duen organoa: Eusko Legebiltzarreko Mahaia

20.3.- Espedientearen izapideak egiten dituen Zuzendaritza ala Zerbitzua: Mantentze Atala
Egoitza: Becerro de Bengoa, z/g
Herria eta posta-kodea: 01005 Vitoria-Gasteiz

20.4.- Espediente-zenbakia: 06-400-11

20.5.- Kontratazio-zentrala: EZ





- 20.6.- Harremanetarako pertsona:
Telefona: 945 004286
Telefaxa: 945 135406
Helbide elektronikoa: monton@parlam.euskadi.net
- 20.7.- Kontratatuzailearen profila, klausulen eta baldintzen agiriak eta agiri osagarriak eskuratzeko sarbidea interneten:
www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org >Zerbitzuak>Lizitazioak.
- 20.8.- Non eskura daitezkeen kontratua gauzatzeko orduan aplikatzekoak diren tributazioaren arloko eta ingurumenaren babesaren arloko obligazioei buruzko argibideak eta enpleguaren babesaren arloan, lan-baldintzen arloan eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean diren xedapenei buruzko argibideak: Ikus klausulen agirian dagokien klausula.
- 20.9.- Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko azken egunera arte
- 21.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN ONDORIOETARAKO (SPKLren 76. artikulua): 500.000 euro
- 22.- ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN PEKO KONTRATUA: EZ
Zerbitzuaren kategoria: 26
- 23.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI BURUZKO HITZARMENAREN PEKO KONTRATUA (KPA): EZ
- 24.- AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA: Gastuen aurrekontuaren partida 25401/00
Izapidetze aurreratua: EZ
- 25.- IZAPIDETZEA, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.
- 25.1.- Izapidetzea:
- Izapidetze arrunta: BAI
- 25.2.- Prozedura:
- Irekia: BAI
- 25.3.- Esleitzeko modua:
- Prezioa da eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra: EZ
- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daude: BAI
- 26.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA: EZ
- 27.- KONTRATU ERRESERBATUA: EZ
- 28.- ESKAINTZAK EDO PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.
- 28.1.- Aurkezteko azken eguna eta ordua: **2011ko ekainaren 30eko 14:00ak arte**
- 28.2.- Azken eguna baino lehen aurkeztu beharreko agiriak: A, B eta C gutunazalak, administrazio-klausula zehatzen agiriak eta karatula honetan dagokien puntuak adierazten duten edukiarekin.





- 28.3.- Aurkezteko lekua: Eusko Legebiltzarreko Erroldan
- Egoitza: Becerro de Bengoa z/g
- Herria eta posta-kodea: 01005 Vitoria-Gasteiz
- 28.4.- Kontratazio elektronikoa zilegi izanez gero (ikus aurreko 26. puntua), honako web orriaren bidez egin daiteke aurkezpena:
«www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org >Zerbitzuak>Lizitazioak».
- 28.5.- Eskaintza postaz igorritz gero, hala egin dela abisatzeko bitartekoak:
- Fax: 945 138017
- 28.6.- Zenbat denboran eutsi behar dion lizitatuzaileak bere eskaintzari (Adierazi ea epe hori hamabost egun naturalekoa, bi hilabetekoa edo SPKLren 145.4 artikulua arabera dagokiona den): bi hilabeteko epean, eskaintza ekonomikoaren gutunazala irekitzen denetik kontatzen hasita; hamabost egun baliadun gehiagoz luzatu ahal izango da epe hori, 136.3 artikulua aipatzen dituen izapideak egin beharra dagoenean (balio anormal edo neurrigabeak).
- 28.7.- Aldaerak onartzea: EZ
- 28.8.- Eskaintzak jendaurrean irekitzea: BAI, data eta ordua aldeztu aurretik jakinaraziko zaizkie lehiatzaileei.
C eta A gutun-azalak irekitzeko lekua: Eusko Legebiltzarrean
- Entitatea: Eusko Legebiltzarreko Kontratazio-Organoa
- Helbidea: Becerro de Bengoa, z/g
- Herria: 01005 Vitoria-Gasteiz
- 29.- B GUTUNAZALA: GAITASUN ETA KAUDIMEN-BETEKIZUNAK (Ikus klausulen agirian dagozkion klausulak. Atzerriko enpresek kontuan hartu beharko dute dagozkion eranskinean aurreikusitakoa).
- 29.1.- Eskatzen den sailkapena: EZ
- 29.2.- Enpresek ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari dagozkion betekizun hauek egiaztatu beharko dituzte SPKLko 64. eta 67. artikuluen arabera.
Betekizunak:
Enpresarenak: Esperientzia eta gaitasun egiaztatua antzeko ezaugarriak dituzten jardueretan.
Profesionalenak: Kontratua gauzatzeko proposatzen diren langileek frogatu beharko dute ezagutza egiaztatua dituztela Bosch DCN sisteman eta bideo-produkzioeko ekipoetan. Langile taldean honako hauek egon behar dute gutxienez: kamera-operadorea, errealizadorea, aretoko operadorea eta zuzendari tekniko eta mantenimendukoa, osoko bilkuren eta batzordeen ordu-tegietara eta instituzioaren beharretara egokitzeko gaitasuna izango dutenak.
- 29.3.- Baldin eta, gaitasuna egiaztatzeko, lana gauzatzeko dauzkan makinei eta ekipoiei buruzko adierazpen bat egitea eskatzen bazaio, makina eta ekipo horiek beren segurtasun-araudiari egokitzen zaizkiola egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira adierazpenarekin batera. Besteak beste, makinei buruzko europar zuzentarauaren ondorioz emandako 1435/1992 Errege Dekretua eta gainerakoak eta ekipoiei buruzko 1215/1997 Errege Dekretua.





29.4.- Eskatzen den enpresari edo lanbide-gaikuntza: Kontratuaren prestazioaren edo jardueraren gauzatzea arautzen duten arauak eskatzen dutena, eta, horien artean, baldin eta adierazita badaude, honako hauek:

29.5.- Lizitatzailleen edo enpresa kontratisten erregistro ofizialak:

- a) Inskripzio-ziurtagiria aurkeztearen ondorioak:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean eta Estatuko Administrazioaren Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean erregistratu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz gero, ez dira aurkeztu beharko klausulen agirian aipatzen diren agiriak, betiere inskripzioa klausulen agirian adierazten den bezala egiaztatzen bada.
 - Beste erregistro ofizial batzuk (dagokiona adierazi):
- b) Ziurtagiri elektronikoak onartzea: EZ
- c) Administrazioak bere kabuz eskuratzea ziurtagiriak: EZ

30.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

30.1.- Prezioa da eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra: EZ

30.2.- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daude: BAI

30.2.1.- Kasu orokorra: BAI

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, garrantzizkoenetik hasita eta emango zaien puntuazioaren arabera zerrendatuta. Puntuazioa guztira: X puntu (ondoko a) eta b) letretako multzoei dagozkien puntuazioen baturak bat etorri behar du beti guztizko puntuazioarekin):

a) Formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak:

Multzo honetako puntuazioa guztira: 50 puntu.

- **Prestaketa barne dela, 6 orduko osoko bilkuraren prezioa:** Puntuazioa: 25 puntu.
Formula: 25 puntu x (Eskaintza ekonomikoenaren balioa/Eskaintzaren balioa)
- **Prestaketa barne dela, 3 orduko batzorde-bilkuraren prezioa:** Puntuazioa: 25 puntu.
Formula: 25 puntu x (Eskaintza ekonomikoenaren balioa/Eskaintzaren balioa)

b) Aplikatzeko orduan balio-iritzia behar duten irizpideak:

Multzo honetako puntuazioa guztira: 50 puntu.

- **Memoria eta lan-egitasmoa:** Puntuazioa: 40 puntu.
Bereziki baloratuko dira lanaren antolaketarako proposamenak eta jarduketan ezarpenarako metodologia. Orobat, taldeko kideen curriculum profesional frogagarria instituzioan egingo lituzketen zereginetan: prestakuntza-ikastaroak, titulazio teknikoak, eta abar.
- **Hobekuntzak:** Puntuazioa: 10 puntu.
Enpresak klausula teknikoaren agiriko baldintzen gainean proposa ditzakeen hobekuntzak, kontratatu behar den zerbitzuaren kalitatea eta edukia hobetzen dutenak:
Hobekuntzak administrazio-klausula berezietan agiriko IX. eranskinaren arabera aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko administrazio-klausula berezietan agiriko IX. eranskinean jasota ez dagoen hobekuntzarik.





30.2.2.- Kasu berezia: Kasu guztietarako aurreikusitakoez besteko balorazio-aldiak: EZ

31.- BESTE GUTUNAZAL BATZUK- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK EBALUATZE ALDERA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHAR DITUEN AGIRIAK (Ikus klausulen agirian dagozkion klausulak).

31.1.- Kasu orokorra: BAI

Adierazi zein gutunazal aurkeztu behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak aplikatzeko:

- A GUTUNAZALA «ESKAITZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK».

- C GUTUNAZALA «APLIKATZEKO JUDIZIO-BALIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEAK».

Aurkeztu behar dira: BAI

Baiezkoa izanez gero, adierazi zein agiri sartu behar diren gutunazal honetan:

Memoria

Lan-egitasmoa

Hobekuntzak

C gutunazalean eskaintza ekonomikoari buruzko agiriak edo datuak aurkeztuz gero edo formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak aurkeztuz gero, ezetsi egingo da lizitatzailerak aurkeztutako eskaintza.

31.2.- Kasu berezia: Kasu arruntetarako aurreikusitakoez besteko balorazio-aldiak: EZ

31.3.- Eskaintzak baloratzeko irizpideen artean bada kontzeptu bat, «beste hobekuntza batzuk» izenekoa: kontratuan ezarritako obligazioez besteko prestazio gehigarriak izaten dira, beste balorazio-irizpide batzuetan sartu gabeak: BAI

Baiezkoa izanez gero, agirian dagozkion klausulan eta agiriaren eranskinean aurreikusitakoari jarraituko zaio, eta honako muga eta baldintza hauek hartuko dira kontuan:

Enpresak Klausula Teknikoen Agiriaren baldintzen gainean proposatu ditzakeen hobekuntzak, kontratatu beharreko zerbitzuaren kalitatea eta edukia hobetuko dutenak.

Hobekuntzak administrazio-klausula berezien agiriaren IX. eranskinaren aranera aurkeztu beharko dira. Ez dira onartuko administrazio-klausula berezien agiriaren IX. eranskinean jasota ez dauden hobekuntzak.

32.- ESKAINTZAK BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN ARABERA EBALUATUKO DITUEN ORGANO ESPEZIALIZATUA: EZ

33.-ESKAITZAN BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK, ARAUDIAN EZARRITAKO EZ BESTEKOAK EDO HAIEN OSAGARRIAK AGERTZEN BADIRA– SPKLren 136. artikulua eta APKLEOren 85. eta 86. artikulua -:

33.1.- Prezioa izanez gero eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra, adierazi ea balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak baloratzeko orduan APKLEOren 85. artikuluko ehunekoak heren batez murrizten diren edo ez (bai/ez):

33.2.- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daudenean:

a) Adierazi zeintzuk diren prezioa anormaltzat edo neurriz kanpokatutako aukera ematen duten kopuru-mugak:





b) Hala balegokio, prezioaz besteko irizpide batzuk anormaltzat edo neurriz kanpokotzat jotzeko beste neurri objektibo batzuk:

34.- ENKANTE ELEKTRONIKOA: EZ

35.- ESLEIPENA EGITEKO LEHENESPENAK. Esleipenean, klausulen agirian aurreikusten diren lehenespenak aplikatuko dira.

36.- ESLEIPENA ERABAKITZEKO EPEA. Klausulen agirian adierazitakoaz besteko epe bat ezarri da: EZ

37. EKONOMIKOKI ONURAGARRIENA IZAN DEN ESKAINTZA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO EGIAZTAPENAK (SPKLren 135.2 artikulua).

37.1 Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoan bitartez eman daitezke ziurtapenok: EZ

37.2 Ontzat hartzen da ziurtagiri telematikoak ofizioz ematea eta datuen bidalketa telematikoak, betiere enpresak baimena eman ondoren: EZ

38.- ADMINISTRAZIOAK KONTRATUA EGITEARI UKO EGITEA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA. SPKLren 139. artikulua arautzen ditu kasu horiek, bai eta gastuengatik eman beharreko ordainei dagozkien baldintza hauek ere:

***Oharra:** Karatula honetako eremuak, edo eremu horietan bete ez direnak, ez zaizkio aplikatuko kontratuari, non eta klausulen agiriko klausuletatik edo aplikatzekoa den arauditik kontrakoa ondorioztatzen ez den.

